

Iruñean, 2023ko ekainaren 20an

(Izen abizenak) eta (NAN zkia) NAN zenbakiduna,
ikastolako langilea izanik, bertako zuzendariarengana zuzentzen naiz honako eskaera egiteko:

Nafarroako Ikastoletako Lan Hitzarmeneko 43. eta 44. artikuluetan oinarrituz, 20XX-20XX ikasturterako borondatezko eszedentzia eskatu nahi dut. Eszedentzia 20XXko irailaren 1ean hasi eta 20XXko abuztuaren 31an amaituko litzateke.

43. artikulua.- *Borondatezko eszedentzia langileak eskatzen duena da, eta horretarako, ikastolan urtebeteko antzinatasuna beharko du bederen, eta aurreko lau ikasturteetan eszedentziarik hartu gabea izatea. Aldez aurretik eskatu beharko da, ahal den denbora guztiaz eta irailaren 1etik aurrera hartuko da, besterik hitzartu ez bada. Borondatezko eszedentzia hartzeko baimena urtebeterako emanen da gutxienez, eta bost urterako gehienez.*

44. artikulua.- *Borondatezko eszedentzia hartu duen langileak zentrora itzultzeko lehentasunezko eskubidea izanen du baldin eta bere espezialitateko edo lan kategoriako lanpostu hutsik bada. Aldi horretan antzinatasuna ez zaio kontatuko. Lehenbiziko hiru urteetan, ikastolak besterik gabe itzuli ahal izatea ziurtatuko du eta horretarako behar diren neurriak hartuko ditu, hala nola ordezen kontratuak eta abar non ez duen enpresak bitarte horretan plantilla finkoa murrizten. Nolanahi ere, aldi baterako kontratua (eta ez ordezenekoa) duen langileren bat bada, besterik gabe itzultzeko eskubidea izanen du. Halaber, borondatezko eszedentzia har dezakete ikasturtean (abuztuak 31) haurra izan, adoptatu edo harreran jasotzen duten gurasoek ikasturtea amaitu bitartean, lehen aipatu urte horiek ezertan kontuan hartu gabe, eta itzulera automatikoa izanen da. Horretarako, haurra izategatik nahitaezko lizentzia hartu behar dutenean jakinarazi beharko dute. Bi gurasoak lan egiten dutenean, batek bakarrik erabiliko du eskubide hau. Langileak, gizon nahiz emakume izan, borondatezko eszedentzia hartu ahalko du, itzulera automatikoarekin, ikasturtea amaitu bitarte (abuztuak 31) 37. artikuluko A.2.b atalean jasotzen diren kasuetan.*

Nire eskaera kontutan hartuko duzuelakoan, zuen erantzunaren zain adeitasunez;

Izen-abizenak